

## Antxiñako fotografixak



## Maristetako futbolistak

**M**aristak, jakiña denez, bi alditan egon ziran Oñatin mutikuen maixu moduan: 1903-1928 epe barruan lehenengo eta 1939-1964 bittartian hurrengo. **San Migel kolejixua** eukan izentzat harein ikastetxiak eta hutsik geratutako Unibersidade zaharriaren emun zittuain euren eskolak aldi bixetan. Alde be, 2. maillako institutua jarri zanian egin euen, 1928xan nahiz 1964an. Gaurko fotografixok bigarren aldiko hasierakuak dira, gerra ondorengo urtetakuak. Ezkerrekuak emuten dau zahartxuagua eta unibersidiaren atarixa ikusten da atzekaldian. Honeitxe dira ezagutu dittugun ikasliok:

Zutik: irakasle maristiak, baten baten ustez, Felix Buezo **Maixu baltz** famauaren taixua baldin badako be, ezezaguntzat harzteia gurago izan dogu; **Juanito Maiztegi**, Natalioneko txokolateriakua; **Joxe Arregi**, Santa Mariñakua; **Karlos Etxeberria**, Kale Barriko Paulitonekua; **Joxe Altuna**, Kale Barriko estankokua; **Antonio Abaunz**, Kale Zaharrekuak; **Bixente Guridi**, Kale Zaharreko Luixenekua.

Makurtuta: **Felix Altuna**, Kale Barriko estankokua; **Miguel Etxegoien**, Patrue kalekua; **Jexus Mendizabal**, Kale Barriko alkilerrekuak; X. X.; eta **Iñazio Biain**, Kale Zaharrekuak.

Bigarren argazkixa **San Martingo** pasialekuan atarata dago. Han egon zan urte askuan Oñatiko mutikuak futbolerako eukain jolasleku ofiziala. Gerra aurreko **Ibarrako** zelaixak (1924) oso gutxi iraun eben, eta **Azkoagaingua** etzan 1949ra arte modutu. Hain egogixa izan ez arren, harri-kozkorrak eta arbola-zuztarrak ugaritxo zittualako, besterik ezian, han moldau bihar izaten ziran orduko futbol-txapelketak egitteko. Esate baterako, Antzuola edota Azpeittiko maristen kolejixotako futbol-taldien kontrako partiduak. Bazan orduan hola hasten zan kantu bat be: "Los **txantxikuarras**, oñatiarras, que ganan a los **sapotarras** ...", hau da, azpeittiarriari. Argazki honetan elastiko arraiadunekin agiri diran gaztetxuak halakoren batian parte hartutakuak izango dittugu. Hona ezkerretik eskumara eta goittik behera euren izenok:

Zutik: **Joxe Mari Uribarri**, zerrajerixakua; **Jexus Zufiria**, Koixkar Garaikua, orduan Kale Zaharrian bizi zana; **Fernando Gereta**, Edmundoneko bodegakua; **Felix Altuna**, Kale Barriko estankokua; **Jexus Mendizabal**, Kale Barriko alkilerrekuak; eta **Pablo Agirrezabal**, Aitzeko tartekua.

Makurtuta: **Jexus Guridi**, Kale Barriko Torrenekua; **Antonio Biain (Gómez gerora)**, Kale Zaharrekuak; **Joxe Arregi**, Santa Mariñakua; **Joxe Iturbe**, Zubillagakua; eta **Gurutz Jausoro**, garai haretan Uribarriko Azkarraga baserrixan bizi zana.

Fotografixa honeittako gaztetxo batzuk Aloña Mendin be jokatu euen 1950etik aurrera, Oñatiko futbol-taldia barriro sortu zanian, eta bat ekipo bereko entrenatzaile izatera be aillgau zan. Unibersidade aurreko argazkixa 1942-1943 inguruan ataratakua da eta San Martingua 1944-1945ian.

J. E.

Argazkixak Mikel Altunak (Unibersidade aurrekuak) eta Joxe Arregik (San Martingua) itzi doskue. Informaziñua, barriz, Joxe Arregi, Joxe Mari Urzelai eta Gurutz Jausororen bidez jaso dogu. Eskerrik asko danoi!